

# Pedagogia da autonomia

Mendiguren, Xabier (itzultzailea)  
Ugartetxea, Arantxa (pedagogoa)  
Oregi, Sabin (komunikalaria)  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia  
Miraconcha, 48  
20007 Donostia

BIBLID [1337-4446 (1999), 10; 115-133]

---

Pedagogia da Autonomia geure hizkuntzan irakurri ondoren, gureganatze prozesu honetan, bakoitzari dagokigun profesionaltasun bidean, pedagogia honek: argitu, hunkitu, poztu eta arduraz gehiago jabetzera geure eginbeharretan eraman gaitu. Jende bezala ikutuak sentitu gara eta elakrrekin konpartitzeko zenbait gogoeta pedagogikoaren beharra nabaria izan da. Pedagogiari buruzko tertulia atsegingarriaren oroitzapen idatzi honetan, Paulo Freireren hitz idatzien euskal irakurketa bat dago geure desiran.

*Giltz-Hitzak: Pedagogia eta Autonomia.*

*Tras leer en nuestra lengua que Pedagogía es Autonomía, en este proceso de apropiación, en el camino de profesionalidad que atañe a cada uno, están pedagogía nos ha iluminado, sensibilizado, alegrado y conducido a asumir una mayor responsabilidad en nuestros quehaceres. Como personas nos hemos sentido conmovidos y la necesidad de compartir algunas reflexiones pedagógicas ha resultado manifiesta. En este trabajo de agradable recuerdo de la tertulia en torno a la pedagogía, hay en nuestro deseo una lectura vasca de la palabra escrita de Paulo Freire.*

*Palabras Clave: Pedagogía y Autonomía.*

*Après avoir lu dans notre langue que Pédagogie est Autonomie, dans ce processus d'appropriation, dans la voie de professionnalisme qui incombe à chacun de nous, cette pédagogie nous a éclairé, sensibilisé, réjoui, et amené à assumer une plus grande responsabilité dans nos travaux. En tant qu'individus nous avons été émus et le besoin de partager certaines réflexions pédagogiques s'est fait sentir. Dans ce travail de rappel de la réunion sur la pédagogie, il y a dans notre désir une lecture basque de la parole écrite de Paulo Freire.*

*Mots Clés: Pédagogie et Autonomie.*

Arantxa Ugartetxea (A.U.)— Lehenengo ta bat, lehen esan dizudana Xabier; izugarri gozatu dut euskaraz irakurtzen *Pedagogia da autonomia*. Nahiko nereganatua nuen, eta horrek lagundu dit gehiago nereganatzen. Nire euskal buru honetan, nire hitzekin ulertzen.

Beste gauza atentzioa deitu izan didana, eta oso polita iruditu zaidana, zuretzat behar bada normala izango dena, *gente* hitza jende bezala itzuli duzula eta ez pertsona bezala.

Xabier Mendiguren (X.M.)— Beno... Jende edo *gente* hitz horri buruz, nik uste dut, euskaraz badagoela tradizio bat, jendetasuna, esaten dugu. Erabiltzen da zentzu guztiz positiboan. Beste hizkuntza batzuetan, jende, zerbait peioratiboa izaten da, edo multzo bat adierazten du... Euskaraz berez jendekoia izan, jendetasuna,... Tradizioa ere badago gaztelaniaz “derecho de gente” edo... latinetik datorrena. Berez hitz nahiko goitarra da. *Gens*, erromatarren kasuan nobleak edo ziren, *linaje* edo horrelako zerbait.

Dena dela hitz horrek eboluzio bat ere izan du, eta gure artean jendaila hitza badago, eta hori mespreziozko hitza da.

Baina nere iritiz kasu honetan erabili dugun testuinguru horretan erabat erabil zitekeena da, Freire-k erabiltzen duen zentzuan. Jende hitzaren bere zentzurik positiboena berreskuratzea iruditu zait.

A.U.— Hori deskubritu dut. Portugalera *gente* hitzat eta jendea gureak, kasu honetan zentzu berea daukatela,... eta orain arte... ba ez nintzen ohartu honetaz.

Lehenengo eta bat «*gente*» gara. Freirek esaten du: «*sou gente, antes que nada somos gente*». Orduan ikaslea «*gente*» da, irakaslea «*gente*» da, eta hezkuntzan «*gente*»a gaude. Hor dago bere humanismoaren oinarria edo sustraia. Askok erabiltzen den hitza da. Pertsona gutxiago erabiltzen da.

X.M.— Hitz hori pixka bat abstraktagoa da...

A.U.— Abstraktagoa? Indibidualistagoa... zuk esan duzuna.

X.M.— Beno gaztelaniaz ere, gaur egun, begira zer erabilera dagoen. Pertsona bakarrari buruz esaten da «*es buena gente*»... Gaur egun erabiltzen da zentzu horretan. Badago erabilera hori: «*Ser buena gente*».

A.U.— Ba, hori da itzulpenaren barruan izugarri atsegin zaidana.

X.M.— Ba niretzat itzulpen hau, alde batetik, oso esperientzia interesgarri bat izan da. Nik Freire ezagutu nuen orain dela hogeita hamabost hogeita hamar urte inguru.

Gogoratzen dut gure artean argitaratu ziren liburu batzuk, eta aldizkaritan aipamenak nola egiten ziren. Eta beno Freire beti iruditu zitzaidan pertsona guztiz interesgarri bat... Bainan nik beti neukan ikuspuntua, alfabetatze mundutik. Kontzientizazioa eta horrelako kontzeptuen inguruan hitz egiten zen... Eta nola, alfabetoa irakatsi behar zen bakoitzak zeukan interesen inguruan. Kontzeptuak, irudiak eta interes guñeak... Orduan irakurtzen eta idazten ikastea, nolabait zela: bakoitzak egunero bizi zuen errealitate baten kontzientzia hartu, aurrean jarri, horren inguruan besteekin harremanetan jarri,... eta beno prozesu guzti hori... talde prozesu bat,... eta gainera eguneroko arazoaz, ez gauza abstraktaz... Alderdi horretatik ezagutzen nuen nik Freire. Banekien Brasilgo egoeran zein inplikatu zegoen... eta gero izan zituen gora-beherak, alde egin beharra,... eta hori dena. Ezta?... baina asko gehiago ez nekien.

Pertsona interesgarria zela. Ekarpen interesgarriak... Euskal Herrian izan zuela bere eragin-garai bat... Eta hortik aurrera asko gehiago ez nekien.

Orain, azkenaldi honetan, berarekin topo egiteko, hemen antolatu zen jardunalditxo hura, goiz hartako jardunaldia izan zen, eta gauza interesgarri asko entzun nuen goiz hartan; batez ere bere egungotasuna edo bere aktualitatea. Horrek pixka bat harritu ninduen. Ikustea Ramon Flecha bezelako irakasle batek..., ikustea ez bakarrik gune batzuetan baizik mundu osoko pedagogian. Batez ere esan zuenean, askozaz zela aipatuena, pedagogia munduan, eta komunitate zientifikoan, hori barometro bat da, neurgailu bat da, jakiteko pertsona baten eragina zenbatekoa den; eta beraz esan nahi du ba momentu horretan hori dela erreferentzia nagusia. Hau da, momentu honetan galdetzen bada zein den pedagogian erreferentzia nagusia? Ba aipamenei dagokienez Freire da.

Gero... harrigarria da; horrelako aipamen tasa ugaritasuna izanik alde batetik; beste alde batetik gu bizi garen giroan zeinen oihartzun gutxi duen.

A.U.– Isiltasun bat dago.

X.M.– Bai. Orduan kontraesan moduko bat gertatzen da.

A.U.– Kontraesana dago! Zenbat aldiz komentatu dugun hau. Ezta? Sabin? Isiltasuna. Ez da aipatu ere egiten gehienetan. Eta... ez da irakurtzen... edo; nik ez dakit zergatik gertatzen den hau.

Sabin Oregi (S.O.)– Ez dakit. Nik pentsatzen dut, batetik Freire-k esaten duen isiltasuna bezalakoa dela, ari garela barneratzen ikusitakoa edo irakatsitakoa. Eta irensten eta jabetzen ari garen momentu horretan isilik gaude.

A.U.– Zuk usten duzu izan daitekeela hori ere?

S.O.– Izan daiteke. Baina beste isilpen bat badago, nik ikusi izan dudana eskoletan, ele-aniztun taldeetan irakasle bezala. Talde bat beste taldearen aurrean ez denean mintzatzera ausartzen. Bi isiltasun horiek diferentek dira.

A.U.– Eta zer esan nahi duzu horrekin? Ez direla ausartzen Paulo Freire aipatzea batzuk?

S.O.– Ez! Ikasle batzuk hor geratzen direla, hor isilik besteen beldur. Beste ikasleen beldur. Adibidez: ea esango dutenekin hanka sartuko ote duten, edo tontotzat hartuko dituzten...

A.U.– Baina Paulo Freire-ren arazo honetan, irakasleria, adibidez, hemen pedagogia fakultatea daukagu, eta isiltasun hori, Sabin, zuk nola sentitu duzu? Ibili gara fakultatean, hitzaldia ematen, honera etorri zen jende bat,... Ez dakit... harremanak ba dituzu. Nola sentitu duzu, edo zer sentitu duzu hor?

S.O.– Nik, hor ikusten dudana, zer den?, beste hainbat ekintzatan ikusten dudana. Askotan ez dugula gure buruan buelta bat egiten txikiago ginen garaietara. Eta orduan gu ikasle ginen garaian, isilik geundenean, zergatik geunden isilik, gure buruari galdetzera. Askotan ez dugu atzera buelta hori egiten eta ez dugu pentsatzen. Nik uste dut arazo orokorra dela. Eta pentsatzen badugu gu isilik geundenean, zein arazoengatik geunden... Kasu honetan irensten genbiltzalako, kasu horietan ba beldurra geneukagulako beste ikaslekiko. Edo alderantziz: pentsatuko ote zuten oso askarra nintzela... Orduan, nik uste dut horiek ere izan daitezkeela pautak ikerketara jotzeko, ea hemen zergatik ez den isiltasuna gehiago kontutan hartzen...

X.M.– Lehen hasi dugun bidetik, iruditzen zait Freire-kin gertatu dela, lehen esan dudana bezala, nagusien edo helduen mundutik ezagutu dela, behar bada hasiera batean.

A.U.– Bai, horrek eman zion arrakasta.

X.M.– Arrakasta. Eta hori Brasildar batek eskaintzea onargarria agian ikusten zen; pedagogia osoaren planteamendua, nolabait brasildar batek gaur egun egitea!

A.U.– ... hirugarren mundutik etortze...

X.M.– ... hirugarren mundu hortatik etortze hori, nik uste, neurri handi batean, arrokaria intelektual bateko jende askori ez zaiola atsegin.

A.U.– ... bai, hor elitismo bat dago...

X.M.– ... elitismo bat zalantzarik gabe. Eta bakarrik amerikarrak aintzakotzat hartzen hasi direnean, hasi da berriz hedatzen bere pedagogia. Eta gainera nik uste dut azken aldi honetan bere pedagogian bereziki estimatzen dut gauza bat eta da bere negoziazio-planteamendua. Hau da, gaurko munduan gune gatazkatsuetan negoziatze kontzepzio honi eta planteamendu hori gero eta emankorrago bihurtzen ari da, eta funtsean Freire-ren pedagogiaren barnean hori da. Barrenean negoziazio planteamenduaren pedagogia da.

A.U.– Barrenean baitago dialogiketasuna. Jendearen dialogiketasuna.

X.M.– Eta honetarako giro bat ez den egon bitartean, behar bada gerra hotza bukatu, eta mundu mailan beste integrazio bide batzuk ireki direnen arte, ez du izan momentu egokirik. Orain gutxienez intelektualak, eta amerikarrak konturatzen hasiak dira zein emankorra izan daitekeen horrelako planteamendu bat. Aparte bere testuingurua, hirugarren mundua, lehenengo mundua, edo holakoak. Egi bat dago hemen. Hau da, bi pertsona aurrez aurre jarri eta bata bestearen arteko transakzio bat. Nik uste dut amerikarrek horren balioa, emankortasun hori, horrek etorkizunari begira munduko harremanetarako duen balioa; hau da, borroka edo gerra edo inposizioa baino momentu askotan bien arteko transakzio bat, negoziaketa bat ondo bideratua askoz ere emankorragoa izan daitekeela.

A.U.– Benetako iraultza hor dago. Benetako iraultza Freire-rentzat, gaur egun, dialogiketasunean dago.

X.M.– Irauli. Irauli egin behar da. Beti behean dagoena gainean jarri, edo horrelako gauzaren bat.

A.U.– Eta hori gustatu zaigu, asko. Eta hor sartu gara errazago; eta hor onartua izan da, gainera hirugarren mundutik etorrira... ba beharra oso garbi ikusten zen. Hemen baino garbiago. Baino hor dago. Hor dago zuk esan duzuna. Dialogiketasun hortan dago bere benetako iraultza.

X.M.– Hor garbi ikusten da ez dela posible benetako aldaketa bat parte hartzen duten bi partaide horiek biak eraldaketa izan gabe. Ezin litekeela bat lehengoan gelditu eta bestea aldatu; baizik hor dialektika bat sortzen dela...

A.U.– Dialektika. Orain esan duzu. Berak bizitzen du pedagogia, hezkuntza dialektiko baten barruan. Eta sentimendutaz hitzegiten duenean ere bai. Beldurra eta askatasuna bata bestearekin. Arriskua eta erronka, amorrua eta maitasuna. Dialektika bidean dabil beti. Hori da bizia eta. Abentura, arriskua, beldurra, ikusmira, erronka, emozioak, biozkadak. Etika, estetika, edertasuna, sortzailatasuna, bizia... eta horren barruan kritika. Niretzat Freire-ren ezaugarriak handiena da dialogiketasunaren barruan eta biziaren barruan egiten duen kritika. Beti prest kritikarako. Baino beti kritika honek eraman behar gaitu zuk esan duzun prozesu horretara. Dialogiketasun horretara. Bata bestearekiko ulermenera, begirunera, eta guk ukatu egiten dugun kritika. Kosta egiten zaigu kritika jasatzea.

X.M.– Bai, normalean bizi dugulako pertsonari egindako eraso bat bezala, edo...

A.U.– Eta ez da erazoa!

X.M.– Askotan alderantzizkoa izan daiteke, eraikitzailea.

A.U.– Eta da. Horrela izan behar du pedagogi mailan.

X.M.– Ez dugu ikasi horrela perzibitzen, edo izugarri kostatzen zaigu. Zuk esan duzun horri lotuta ikusten dut badagoela momentu honetan, (berak horretaz hitz egiten du azkeneko liburuan) mundu globalizazioa. Nola ekonomia globalizatu den azken urte hauetan; eta horrek nola ekarri dituen ondorio ekonomiko gogorak. Bereziki hirugarren mundua deitzen den horretan.

A.U.– Ekonomia liberala!

X.M.– ... ekonomi liberalismo erabat amorratu batek ekarri ditu egoerak oraindik gehiago muturreragotzea.

A.U.– Oso gogorra da

X.M.– ... oso gogorra. Beno. Eta hau saltzen digu liberalismoak hala behar bezala. Zerbait fatala. Hori horrela gertatzen da... eta kitto.

A.U.– Fatalismo bat. Ezin da ezer egin. Freire erotu egiten zen horren aurrean. Ez esan niri ezin dela ezer egin... esaten zuen.

X.M.– Eta hor ikusten da nola gizakiak antolatzen duena, gizakiak desantolatu dezakeen. Alboratu dezakeen eta abar. Orduan hor ikusten dut oso ondo gaur eguneko intelektual batzuk eta gidari edo eliteko jende batek duen planteamendua esanez: mundua horrela da eta ez dago ezer egiterik.

A.U.– Poltroian eserita geldi.

X.M.– Eta honen kontra berak hartzen duen amorrua ia biblikoa da. Profeta baten modura jaikitzen da eta izugarritzko indarrarekin esaten du: ez, gizakiak egiten duena gizakiak desegin dezake eta alda dezake. Eta alderdi horretatik iruditzen zait bere nortasun osoa kritika horretan ari dela, edo dagoela.

A.U.– Kritika horretan dago. Eta kritika praktikoan. Inoiz ez da geratzen teorian. Munduan daukagun esku hartzean oinarritzen da. Ez dago ezer bukatua, ez dago ezer egin da. Egiten ari gara. Eta determinismoaren aurkako jarrerak ikuspegi hau dauka oinarrian.

Bere herria ikusten du gosez hiltzen, nola jasango du? Ezin da geldik geratu!

X.M.– Gero, bere liburu guztian ikusten denez esperantza handia duen gizon bat da. Hau da, barren baikorra dauka gizon honek.

A.U.– Barruko poza.

X.M.– Indarra dauka...

A.U.– Halakoxea zen...

X.M.– ... baikorra. Baikotasuna. Eta sinestu egiten du denborarekin gauzak alda daitezkeela, eta hori nolabait kutsatu egiten du. Hori bere hitzetan eta bere adibidetan.

A.U.– Horrek eramandu askotan bera utopiko bezala kalifikatzea, eta berak esaten zuen beti utopia gabe ezin dela bizi. Hor dago bere itxaropena eta bere poza, eta bere eskubidea mundua aldatzeko; utopia erreal bat da.

S.O.– Baina berak esaten duen utopia hori ez da beste filosofo batzuk ulertzen duten utopia. Bere utopia da aldaketan amets egitea. Ea nola aldatu dezakedan. Nik hori ulertu dut!

A.U.– Eta egitea. Parte hartzea. Inplikatzea. Eta hortik dator bere beste ezaugarri garrantzitsuenetako bat: Politika. Ez dago pertsona neutralik. Zuk esku hartzea badaukazu mundu honetan, zerbaiten alde edo zerbaiten aurka zaude beti. Sozialki inplikazio politikoa hor sartzen da. Baina hori da benetazko politika. Ez da politikeria edo politikotasun kaxkarra.

S.O.– Eta lotuta zuk esaten duzunarekin, badago pasarte bat 3.7. azpiatalan [behe aldiari] esaten duenean *Ensinar exige reconhecer que a educação é ideológica*.

A.U.– Ah, bai, noski. Beti ideologia bat dagoela hezkuntza sistemaren atzetik. Montai bat da. Nik eraten badut neure eskolaxoa, neure ikuspegiaren araberrara egingo dut. Orduan ez dago inoiz neutraltasunik. Inoiz ez. Ez da existitzen.

X.M.– Aldiz liberalismoa, hori saltzen ahalegintzen da. Nolabait neutraltasun bat ustez dagoelakoan, eta inork ez duela hor parte hartu behar.

A.U.– Eta zientzia objektiboa dela...

X.M.– Orduan bere ideologia kamuflutzen du ez-ideologia baten itxurapean. Eta Freire ausartzen da esatera ez dela posible neutrala izaterik egoera, ia alde aurretik, markatu batean. Eta orduan bere ideologiarekiko aukera eta konpromezua nolabait aldarrikatu egiten du.

S.O.– Bai, bainan Freire-k hitz egiten duen bezala irakasleaz, badaude beste autoreak hitz egin dutenak komunikadoreaz. Eta azken batetan, beti esan da, komunikabideak ez dutela gezurra esaten. Kazetari bakoitzak hitz egiten du bera dagoen lekutikan. Eta berak hitz egingo du berak ikusi duen egiaz, baina han bere kontrako muturrean dagoenak beste gauzak ikusiko zituen...

A.U.– Edo nahi ditu ikusi.

S.O.– Edo daukan lekuak ere kondizionatzen du.

A.U.– Horregatik behar beharrezkoa da kritika. Kritika da oinarria. Zerbait eraikitzeko oinarria.

S.O.– Bai, eta kritika beti ulertzen da, lehen esan duzun bezala, destrukzio bezala. Eta alderantziz da...

A.U.– Kritikatik sortzen dira deskubrimendu berriak, eraberriak, eraldatzeak,... dana kritikatik dator. Eta kritika da gauzarik baikorrenetakoa. Daukagun ezkortasunak, kritikari buruz, itxi egiten gaitu.

X.M.– Baina kritika horrela perzibitzeko, alde aurretik kontsentsu-nahi bat bi aldeetatik egon beharko du, nahiz eta ez jakin biak nora iritsiko diren, elkarriketaren ondorioz...

A.U.– Bai, zeren abiapuntu bat da.

X.M.– Abiapuntu bat da; gutxienez onartua eduki behar dute biek nahi dutela bide hori egin. Arrisku hori biek bizi. Ez baitakite azkenean nora eramango dituen. Eta hori bai da, seguru asko, kritikak egiten ditugunean edo hartzen ditugunean, asumitzen ez dugun abiapuntu bat askotan. Kritika hartzen dugu bestea menperatzeko tresna bezala. Alde aurretik garbi daukagun helburu bat lortzeko tresna bezala. Eta Freire-k planteatzen duen erara da, berriz, biak elkarrekin arrisku batean sartzea eta helburu ez ezagun batera iristea.

A.U.– Zintzotasunean

X.M.– Zintzotasunean. Jakina. Eta hori da abiapuntu ta baldintza ezin besteko bat. Zeren hori gabe nekez ulertu daiteke kritika eraikitzailea, eta... bientzat positibo izango dena. Zeren azken batean irabazle eta galtzaileen arteko harreman bezala bizi izaten dugu askotan...

A.U.– Ez dago irabazlerik.

X.M.– Hori da neretzako daukana... dialogismoa, ikuspuntuaz aldaketa. Azkenean guztiok elkarrekin zerbait positibo eta interesgarria, biontzako interesgarria dena bilatzeko...

A.U.– Eta biontzako, eta gizartearentzako gehiago izatera bideratzen gaituena. *A ser mais*, berak esaten duen bezala. Bide horretan jartzen gaitu.

S.O.– Eta... zer da "*a ser mais*"? Nik, nere ustez da, berak esaten duen bezala «*ser consciente de las decisiones que tomo*».

A.U.– Bai asumitu. Praktikan.

S.O.– Asumitu nik hartzen ditudan ardurak. Niretzat, hemen dago beste gauza bat atentzioa deitu didana. Zeren orain arte ez nuen horrelako testuetan sekulan topatu.

A.U.– Eta hori, gela barruan, berarekin bizitzea zen gauza bat zen. Berak bere ikuspegiak eta bere iritzia zituen. Agertzen baginen, kritika baten barruan, inoiz ez genuen topatzen irakaslea kontrajarria ez, biak bide berdinean jartzen ginen irakasle eta ikaslea zerbaiten bila. Eta niretzat esperientzia berri bat izan zen, inork ez zeukan ezagueraren jabetasuna. Biok bila gebilztan. Eta hor aurkitzen ginen maila berdinean. Hori da, maila berdinean!

X.M.– Liburuaren bigarren kapitulu hitz egiten du honetaz, hain zuzen esaten duelako irakastea ez dela ezagutza transferitzea... baizik eduki behar dela zerbait bukatu gabeziaren kontzientzia. Zerbait bukatugabea dagoelakoaren kontzientzia.

A.U.– Bukagabeak garelako denok, zerbaiten bila gabiltza. Osakuntza baten bila gabiltza.

X.M.– Osatze-prozesua hori da, nolabait irakastea eta ikastea, eta horregatik biak daude elkarri lotuak. Irakasten duenak ikasi egiten du, ikasten duenak irakatsi egiten du. Bi alderdietatik, bukatugabezia dago. Horregatik azpimarratzen du kapitulu horretan hezigaiaren autonomia ere. Zergatik hezigaiak daukan hainbeste esateko. Bukatze, edo bukatugabetasun hori nolabait hor dagoelako.

A.U.– Hezigaiak nola osatzen ari den bere osotasuna adieraz dezake. Nik gogoratzen dut nola esaten zigun: eskubiko ikasle bat baldin badaukat gela barruan eta berak lana egiten badu bere ideiak defenditzen, eta ongi eramana badago lan hori, nik berdin jarriko diot hamar edo matrikula emango diot, zeren bere adostasunean mutil edo neska hori aurrera doa. Inoiz ez zuen ikusten konfrontazioa borroka bat bezala. Bakoitzaren aurkikuntzaren bidea bezala. Hori zoragarria da. Eta esperientzia horrek benetan barrutik ondo sentitzen laguntzen du. Inoiz ez zara mesprezatua sentitzen. Askatasun osoa sentitzen duzu gela barruan zure iritzia emateko, zeren inoiz ez da iritzi hori okerra, edo gaizki ikusia, edo ez dakit gutxietsia. Ez, denok gaude bide berdinean. Jakinduriaren bila. Praktikan bizitzea Freire zoragarria zen. Eta bere praktikaren irakurketa eta entzutea!... Gauza bat da isilik egotea eta bestea isildua izatea. Guk isildu egiten ditugu gehienetan [*irribarreak*] pertsonak... Isildu egiten ditugu gela barruan. Sistema bat badagoelako, edo denborarik ez daukagulako elkarrizketarako, zeren gaia eman behar dugu edo... Eta hor ari gara kreatibitatea, jakinduria eta dena murrizten. Landu beharrean, mozten.

X.M.– Jakinmina moztea. Berak hainbeste azpimarratzen duen jakinmin hori. Berak jakinmina jasotzen du guztiaren gidari bat bezala. Azkenean jakinminak eramaten gaitu egoera

berrien aurrean jartzea, galderak egitea, beste posibilitate batzuek bilatzera. Eta asko azpimarratzen du jakinmin hori. Eta ez mugatzea, ez moztea.

Niri inpaktu berezia egin didana liburu hau itzultzean izan da; alde batetik zeinen simplea, ulerterraza, konplikazio gutxiko azalpenak, ideia argiak dituen. Eta era berean horren atzean susmatzen den bere kondentsazio handia. Jakituria haundiko pertsonak bakarrik lorzen duten zer bait.

A.U.– Sinpletasun, sakona

X.M.– Simple, hitz gutxi, argi eta ez du ikaragarritzko aipamenik egiten, hau ta bestea eta hura, eta halako pentsalari ta bestea. Hori dena, ikusten da, irentsita dauzkala baina bat eginda eta oso koherentziatua daukala. Orduan sentsazio bikoitz hori ikusten da. Hitz askoren artean dagoen sakontasuna, baina era berean, daukaten erraztasuna ulertua izateko, kontzeptuen argitasuna, ez dago erretorika bihurri nahasirik eta holako abstrazio handirik, oso bi gauza horien presentzia ikusten da bere obran.

A.U.– Bai bere sinpletasun horrek eraman du askotan gutxietsia izatera. Nik gogoratzen dut, ez dakit nork esan zidan, edo berak esan zuen, ez dut gogoratzen. Lehenengo aldiz Alemaniara joan zenean eta bere liburua *Pedagogia do oprimido* agertu zuenean simpleegia aurkitu zutela hango filosofoek...

X.M.– Oso ondo ulertzen dut hori alemanen liburuak ikusi ondoren.

S.O.– Baina berritasuna dago, esateko moduan. Lehendabiziko berritasuna. Bigarrena, esan egiten duela. Zeren berak esaten dituen gauza asko, behar bada jende pilo batek pentsatuko zituen, baina sekulan ez ditu jarri txuri-beltzean. Eta berak jarri ditu.

A.U.– Gauza arruntak dira. *Rastreador do obvio*.

X.M.– Eta bere kasuan igertzen da, esaten duena eta bere bizitzako esperientziaren artean lotura hestua dagoela. Hau da, askotan filosofo edo pentsalariak ideia interesgarri asko esaten dituzte, baina ez da batere garbi ikusten beren bizitzetan duen garrantzia, edo bizitza aldatzen dien, edo bere bizitzatik sortutako gogoetaren bat... ez da hori hain garbi ikusten. Baina hemen ikusten da, etengabe gainera, aipamenak egiten dituelako, bere bizitzako pasarteak aipatzen ditu, izan dituen anekdotak... Ikusten da bere pentsamendua eta bere eguneroko bizitza, praktika, gauza bat direla. Azken batean ez dagoela gogoeta intelektuala alde batetik egina, hor laboratoriorio moduko batetan, eta bestetik bere bizitza ta bere lana. Zuk lehenago esan duzuna hori berretsia edo azpimarratua ikusten dut, hau da, koherenteki jokatzen zuela hitz egitean, bizitzean, eskolan, eskolatik kanpo, gizartean orokorrean. Batasun oso koherentea zuen pertsona bezala, eta bere pentsamenduaren koherentzia, lotura, errespetua, eta abar, horrela ulertzen dira oso ondo. Esan nahi dut, ez da ideia kontu bat... baizik bizitza da.

A.U.– Bizipena. Bizitza osoa hartzen du kontutan. Niretzat harrigarriena izan da, gainera, gizonetzkoa izanda emozioaz hitz egitea. Sentsibilitateaz hitz egitea. Zeren emakumeak hitz egitea normalagoa izan da. Eta pedagogia munduan ere bai. Baino berak ekartzea hori pedagogia mundura, pedagogia emozional bat, eh!, afektibitateari buruz hitz egitea, esatea ikaslea maitatu egin behar dela... Nork esan du hori? Gizonetzkoek ez duzue esan.

S.O.– Baina guk bizi izan dugun eskola, izan da eskola bat justu justu egin duena balore edo jakinduriak edo holakoak erabat pizarraren gainean jarri eta liburu batzuetan, eta suposatuta ikasi dituzula.

A.U.– Bai, transferentzia.



S.O.– Pseudo-transferentzia nik esango nuke. Zeren ez duzunez izan aukerarik frogatze-ko erakusten dizutena, ezin duzu sekular ikasi. Ikasiaren bide erdia egin izan duzu. Nik hori oso ondo ikusten dut gaur hitz egiten ari garena beste teoria batetan: «Txepetx»ena lotzen baldin badugu. Freire-k bide osoa erakusten digu. Ikasketaren bide osoa. Eta azken batean biak nahiko gertu dabilta hainbat puntutan. Bakarrikan «Txepetx»ek erakusten digula ikasketaren prozesua nola egiten dugun, ze faktore, edo zein baso komunikanteak (berak esaten duen bezala), momentu batean parte hartzen duten ikasketaren prozesuan. Eta faktore horien artean bakarri erabiltzen da, guk ezagutzen dugun hezkuntza sistemetan, eta da justu justu ezagutza kulturalen lana egitea. Baina ez zaio praktika kulturalik eman, gero zuk hori praktikatu ahal izateko. Eskola gelditu da justu, ezagutza kulturalen, ez da kontuan hartu zein motibazioa daukazu eskolara edo ikastegi batera joaten zarenean, hizkuntza bat ikastera edo beste edozer ikastera. Kontuan hartze hori; gainditzea, nota bat jartzea eta kitto.

A.U.– Ikastolan sartu nintzenean, nik sentitu nuen, eskola-aurrean, bazegoela ba holako sentsibilitate bat. Baina gero galdu egiten da. Non geratu dira eskolaurreko borobilak,... Kokatze hura, bakoitzaren hitza, andereñoarena eta ikaslearena, denak maila berean; baina hori moztutzen da ikaslea bere autonomiaren jabe egiten den araberan, hori moztu egiten dugu. Zer aldrebeskeria!

S.O.– Ikaslearen autonomia, edo alderantziz.

A.U.– Menpekotasuna

S.O.– Nik uste dut beti gaudela autoritarismoaren menpe. Maila denetan.

A.U.– Oso autoritarioak gara.

S.O.– Gizartea, eskola,...

X.M.– Nik honi buruz daukadan inpresioa, ikastoletan eta egon den giroari begira da, garai horretan, lehen aipatu den garai horretan, orain dela hogeita-bost hogeita-hamar urte, alde batetik zegoen Freire eta bestetik Celestin Freinet. Freinet-en eta, Freire ez hainbeste haur txikien mailan, baina hor ikusten zen posible zela ordurarte ezagutu zen pedagogiaz aparte, eskola munduaz aparte, zerbait askoz sortzaileagoa...

A.U.– Ikasleak parte gehiago hartzea!

X.M.– ... parte hartzaileagoa, jolasa eta ikasketen arteko lotura, eta abar. Batez ere lehenengo urtetan, hori oso ondo ikusten zen. Hor ematen ziren hainbat eta hainbat aukera, material,

A.U.– Arriskatzten genuen!

X.M.– Baina gero, urtea bete ahala, funtsean pentsatzen zen hori ondo zegoela txikitari, umeak zoriotsua izan behar zuela, ta abar. Baina gero helduaren mundura zetorrela, eta hor ez zegoela bromarik. Hor diziplina behar zela, eta ezagutzak behar zirela,... gainera gizarte kompetitibo lehiakor baterako prestatzen ari zirela. Eta txikitako mundu hori Walt Disney-*ar* fantastiko polit hori, hori hor bukatzen hasi behar zela. Ez zen ikusten nola pasatu benetan koherenteki haurren mundu polit, sentimendu, jolasak, kantak, bakoitzak nahi duena egitea, kreatibizatzea. Bost sei urte horietan hasten zen etena egiten.

A.U.– Ez dugu asumitu bizitzeko, krisialdia pasa behar dela. Gurasoak zer bizitzen dute etxean? Ez duzue bizitzen krisialdi bat zuen seme-alabekin, prozesu horretan, heldutasun horretan, autonomi hortan? Hori gela barruan eta hezkuntza barruan ez dugu nahi izandu bizi.

Orduan moztu egin dugu. Eta krisialdi hori, izango litzateke kritika momentu bat, izugarri ederra eta eraikitzailea. Eta kreatiboa. Eta hor moztu egin dugu. Ez gera aurkitu prestatuta, ez dakit bageunden ere prestatuta, eta beste aldetik beldurra eduki dugu. Beldurra eragingo da.

X.M.– Guraso elkarteak, zuzendariak goitik behera kontrolatzeko eta fiskalizatzeko sartzan dira

A.U.– Bai, autoritarismoa sartzen da. Ras...

X.M.– ... neurketa kuantitatibista hutsak, gero eta gehiago jartzea; orduan hor ikusten zen, alde batetik bazegoela mundu ludiko bat

A.U.– Idealizatu!

X.M.– Idealizatu ta oso polita ta abar. Eta, bai horren alde geundela, baina epe baten barruan eta neurri baten barruan...

A.U.– Bai, guk menderatzen genuen bitartean

X.M.– kontrolatzen genuen bitartean; eta gero esaten zen bukatu da jolas ordua, errekreoa bukatu da ta orain hemen lana egin behar da. Gero etorri ziren beste planteamentu konstruktibistagoak, Piaget-en planteamenduak, eta abar.

A.U.– Nik benetan ikusi dudan andereñoa ikastola barruan autonomia lantzen Marian Gojenola izan da.

X.M.– Zuk ezagutu al duzu hori?

A.U.– Bai! Esperientzia zeharo ezberdina... Ez dago zatiketarik, pertsona osoa hartzen du berak. Eta ikaslearen, hauraren, umearen, gaztearen autonomia lantzen du.

X.M.– Ni ere kontziente naiz zenbat sofritu zuen berak konturatzen zenean bere planteamundua ez zela ulertzen, eta jarraipenik ez zeukala. Halako puntu batean aurkitzen zuela horma bat.

A.U.– Nik gogoratzen dut, behin Freire-k nola esan zuen: nere alaba, Madalenak, neregatik esaten dituzten gauzogatik, egunkarietan, sufritu egiten du. Eta jarraitu zuen, nik ea ez dut gehiago sofritzen, eta gainera neuk ere nere kontraesanak ditut, adinarekin ikasten duzu nahiko baretua bizitzen, neurri batean, kontraesanak onartzen eta beraiekin bizikidetzen, osagabeak garenez.

X.M.– Baina horrek erakusten du heldutasun bat, distantzia bat hartzeko gaitasuna...

A.U.– Baina hori da hezkuntza. Hezitzea. Zientzia, jakitea, aparatuetatik etorriko zaigu, baina pertsona, harremanak... geure barruko baretasun hori, geure izaera onartzea, bestearekin konpartitzea, hori da hezitzea. Hori da pedagogia. Pedagogia hor dago. Eta pedagogia autonomiarako. Bakoitzaren burujabetasuna lortzeko

S.O.– Eta nik uste dut, zuri entzunda, eta aurrerago esan duzuen kontutan hartuz, derrepente borobila eten egiten dela, eta antzinako sistema, esan dezakegu, jartzen dela... ez ote dago itsutasun bat eskolaren aldetik gizarteari begira? Zeren gizartean, enpresa batean jartzen den ingeniariaren lana... nola neurtzen dute? Ez dute neurtzen zenbat salmenta egin dituen. Neurtzen dute ea nola lortzen duen berritzea makina, edo makina berri bat ateratzen. Eta ez diote begiratzen hainbeste zenbat denbora pasatzen duen; baizik ea lortzen duen makina ona egitea, ahal den eta denbora laburrean, jakina!

A.U.– Etekinari.

S.O.– Horri begiratzeko saio etekin praktikoko bati, eta alderantziz, beste saltzaile bati etekin ez praktikoa, adibidez zenbat jende engainatu duen, modu batean esateko. Orduan ingeniariari eskatzen zaio gauza positibo bat; eskolaren lehenengo urte horietan egiten dena ba hartu denbora, jolastu,... ta bitartean sorkuntza egin.

X.M.– Egia da orain enpresa munduan, eta kalitate hobekuntza prozesuetan gero eta gehiago baloratzen dela talde-lana egiteko gaitasuna, hau da, norik bere iritziak besteekin lotu, kontrastatu, baloratu,... gero eta gehiago baloratzen da pertsonaren arteko harreman orekatua. Hau da, zuzendaritza edo exekutibo on bat izateko, batzutan pentsatzen da ba izan behar dela pertsona oso gogorra.

A.U.– Autoritarioa.

X.M.– Baina gero eta gehiago baloratzen da.

A.U.– Konpartitzen dakiena.

X.M.– Konpartitzen dakiena eta helburu horiek modu positibo eta egokiz ateratzen dakiena. Zeren askotan gauza berbera lor daiteke, kontrako gutxiagorekin; hori beste era batera egiten jakinez gero. Ez da berdin kanpotik ezarrita helburu bat lortzea, lan eragitea, edo ekipo batean integratuz ilusioarekin, nolabait osotasun batean parte sentiaraziz, lortzea. Alderdi horretatik ikusten dut enpresa barruetan lankidetzeta eta elkar hartze giro hori, eta eten gabe gainera bere burua prestatzen egote hori, gero eta beharragoa dela,... ze lehen nahikoa zen behin ikastea lanbide bat bizitza guztian horrela jarraitzeko. Baina gaur hori ez da posible, bost urtez behin aldatu egiten dira teknologiak eta gauzak, eten gabe egon behar da gainean, eta horrek eskatzen du oso irekita egotea, oso malgua izaten; eta gainera bakkirik ezin dela lana egin..., zeren kateak eta multzoak daude. Horrek neurri batean eskatzen du garai batean egon ez den pedagogia baliabideen berreskuratzea. Eta hori gero eta garbiago; hala ere liberalismoak, (eta Freire-k hori esaten du liburuaren barruan), onartzen ditu horrelako balioak, baina azkenean... horren ondorio guztia azkeneraino eramaten ez du uzten. Nolabait aprobetxatzen du horrek daukan alderdi, produktibo edo etekina sortzearena eta abar... eta batzuetan deszentralizazioak eta horrelako gauzak egiten dira, autonomiak emateak eta abar... baina produktibitatearen araberan. Eta ez gero benetan pertsona horiek gehiago diren edo ingurua hobeto aldatuko duten, edo beren artean lotura hobek sortuko dituztenen araberan. Loturak jartzen dira hori neurtzeko. Aurrerakoitzat eta berritzaletan hartzen dira balio batzuk sistema berak behar dituelako gaur egun funtzionatzeko. Baina azken ondorioetara iritsi gabe. Esate baterako, azken ondorioetara iristea izango litzateke leku batzuetan hartzen diren erabakia ekonomikoak, beste batzuetan zeinen ondorio txarrak dituzten aztertzea. Eta hori sistemak ez du onartzen.

A.U.– Aizu, eta gauza bera gertatzen da politikan, Freire-k defenditzen duen politika, boterea konpartitzea da. Ez da alderdi batek bere poderioa edo bere boterea erabiltzea gehiago direlako. Gaur eguneko politikak ere horra garamatza. Ikuspegi asko daude eta eskuhartze era askotakoak daude. Orduan konpartitzea da. Nik askotan pentsatu izan dut partidu barruan zeinek irabazi du? galdetzen denean, konpartitzen dakienak, dela erantzuna. Baina politika mailan hori oso zaila da ikustea, zeren boterea nahi dugu eskusibitatean. Baina boterea konpartitu egin behar da. Eta hori da eskuhartze politikoa defenditzen duena Freire-k. Eta hori da gaur eguneko, dialogikotasunaz hitz egiten dugunean esan nahi duguna.

X.M.– Holako zerbait gertatzen da koalizio politikoetan. Baina koalizio politikoetan ezinak ekartzen du konpartitzea gehienetan.

A.U./X.M.– Ezinak, ez, komentzimenduak, esaten du Freirek.

A.U.– Biziak berak bideratzen gaitu askotan behar dugun lekura.

X.M.– Hori da. Eta Freire-k proposatzen duena gehiago da. Eduki arren, nolabait, banatzen edo partehartze hori izan ez dadila ezintasunarena.

A.U.– Herria da soberotasuna daukana. Orduan ezin dugu eskusibitatean bizi, edo partidu batek bere eskusibitatean bizi. Ez, zabaldua dago soberotasuna. Orduan beharrezkoa da konpartitzea. Kanpaina elektorak nola egiten dira? Irabaziko dugu! Beti irabazi, irabazi, irabazi... Inork ez du esaten goazen konpartitzera.

X.M.– Guk ateratzen badugu prest gaude beste batzuekin gauza hauetan... konpartitzeko.

A.U.– Baina guk ateratzen baldin badugu.

X.M.– Jakina, beti, guk ateratzen badugu.

A.U.– Agintepean, Aginduz, eta besteak agintepean.

S.O.– Behinik behin gu ere barruan baldin bagaude. Ez baditugu lortzen nahiko botoak, nahiko bozak, egoteko agintariak egoten diren taldean, ezingo dugu ezer egin. Lehendabizi barruan egon beharko dugu. Ez eskuhartzea bakarrik, baizik esku-hartzearekin batera barrura sartu beharko dugu, talde barrura.

A.U.– Bestela ez daukazu boteririk, ezin duzu ezer egin.

S.O.– Ez daukagu lege elektorak proportzionala zuzena, zuzenketa batekin dago. Minimo bat ez bada lortzen botoetan kanpoan zaude. Orduan minimo hori gainditu egin behar duzu barrura pasatzeko. Lehengo maila pasa egin behar da.

X.M.– Sistemak behartzen zaitu neurri bateraino jokatzera.

A.U.– Lehiaketa batetara

X.M.– Jokua arauz bete dago. Joko arauak ez badituzu betetzen, ezin duzu... ez eta hurbildu ere ezin zara egin. Eta gero beste kontu bat izango da partaidetza hori nola bizi. Zuk egin nahi dezakezu gobernu bakar bat, zu zeure kolorekoekin bakarrik, zeure kordakoekin edo... bi edo hiru joeratakoekin erdibide gisa. Horiek egiten dira momentu batzuetan.

A.U.– Behartuta, zuk esan duzun bezala.

X.M.– Bai... behartuta, baina ikusten da hortik ateratzen den politikak, talde konkretu batentzat, behar bada, hain emaitza onak ez eman arren, orohar gizarte edo multzo zabal bati begira, ba helburu orekatuagoak lortzen dituela. Inor ez da erabat ase eta geldituko beteta; denak amore eman behar dutelako. Baina orohar gizarte osoa, ba dirudi mesede gehiagorekin gelditzen dela. Nik noiz edo noiz entzun izan dut, ez dakit nori, koalizio-gobernuen errealtate horrek kultura bat izatea suposatzen duela. Eta hori ikastea prozesu bat dela. Hau da, inor ez dago prestatuta koalizio-gobernu batean lehenengo momentutik ondo lan egiteko. Zeren bestea ikusten duzu zuri gustatzen ez zaizun zerbait egiten ari dela.

A.U.– Aurkakoa bezala.

X.M.– Bai. Hau da, iritsi badira akordio batzuetara... ba biek amore eman behar dutelako da. Baina ez zeure gustuz, edo ez inola ere positiboki. Orduan pixka bat ezinezkoa...

A.U.– Paktoak daude.

X.M.– Orduan urteetan koalizio gobernu batetan lan egitea, ez dakit herri bat antolatzea edo abar... hori benetan,

A.U.– Ariketa bat da

X.M.– Ariketa gogor bat da, zeure burua eta bestearekiko harremanen ezaguera on bat eskatzen dizu; ondo aztertzea... eta jakitea zer den funtsezkoa zuretzat, zer ez den hain funtsezkoa, eta zer puntutaraino, hor marra bat bien artean jar daitekeen eta abar. Orduan, hori interesgarria da, eta seguru asko alderdi horretatik Brasil bezalako hain zabal eta hain gatazkatsu eta hain gora beheratsu batean,... ba Freire-k hori oso ondo ulertzen zuen. Zer den gutxi batzuk, askotan, beren beldurrek,... beldurra eta pribilegiozko egoera bat galtzearren aurrean sentitzen duten izularri hori, hori nola desmontatzen den. Hemen denok behar dugu oinarritzko interes bat, inor ez dago fatalki jaiotzatik ba bigarren arraza batekoa balitz bezala ...

A.U.– Guk baino gehiago pentsatzen dute. Eta bilatzen diote biziari buelta bizitzeko. Bizirik iraun da.

X.M.– Badago liburuan parte bat oso interesgarria aurre-iritziei buruz, nola sistema nagusiak azpian dauzkan taldeei, bere ideologia eta hizkuntza ezartzen dizkien agertzen duena.

A.U.– Eta gehienetan konturatu gabe gainera.

X.M.– Konturatu gabe. Fenomeno hau, esate baterako, ikusi izan da publizitatean, esate baterako, uste dut Mexiko bezalako herri batean, gehiengo kolorez iluna dela. Nola publizitateak nagusiki ile horiak eta begi-urdinak ateratzen dituen. Hau da, badaude balio batzuk estetikoki eta prestigioari lotuak populazioaren gehiengoaren kontra, askotan sistemak erabiltzen dituenak. Tintatu egingo dituzu ileak, eta ez dakit, jarriko dituzu ba begietan koloretako lentilak eta abar. Balio batzuk talde guztietan hedatzen direnak. Aldiz, Estatu Batuetan momentu batean «Black is beautiful», beltza ederra da, eta hasi ziren estetika berri baten balioak bultzatzen; eta seguru asko talde horietan harrotasun bat sortu da. Beltz izatearen harrotasuna. Gehienekin gertatzen den bezala. Talde minoritarioen barneko harrotasun erreibindikapena. Baina hori kontzienteki egin behar izan da, eta borroka bat izan da. Eta aurretik zeuden balioen kontra eraiki behar izan dira beste balio batzuk, esateko, gu gauden bezala ongi gaude, eta gure arraza ederra da, ez horiek ezartzen digutena.

A.U.– Guk ere, euskaldunok barruan gureganatuta dauzkagu, holakoak. Eta ez gara konturatzen. Geure barruari buruzko kritika ere behar dugu. Zeren baserritarraren gutxietsia ere errealitate bat da.

Nik gogoratzen dut Freire-k nola kontatu zuen, Kabo Berde independizatu zenean, ez dakit hango lehendakariak edo... lehenengo diskurtsoa egin zuenean, herriari esan zion: beno kolonizatzaileak kanporatu ditugu, baina gure barruan dagoen kolonizatzailea kanporatu behar dugu orain, lan gogorra geratzen zaigu. Eta askotan ez gara konturatu ere egiten. Hain normaltzat jotzen ditugu zenbait jokaera eta espontaneoki ateratzen zaizkigun hainbeste gauza, barneratuta dauzkagunak! Zenbait euskal kulturarekiko infrabalarazioak, bizi izan ditugu honela normalak bezala jotzen ditugu. Ez gara konturatzen!

X.M.– Ba analisi hori, esate baterako, hizkuntza eta errealitatearen reakzioei buruzko aurre iritzia eta abar, hori pixka bat da Freire-k daukan globaltasunaren adierazgarri bat. Hau da, zeinen kontzientea den errealitateaz, ez bakarrik begien aurrean gertatzen diren fenomenoez eta abar; baizik hizkuntza bezalako tresna sotilago baten baitan ze karga ideologikoa transmititzen den eta honekin nola lan egiten den zentzu batean edo bestean.

A.U.– Bera mundu hortatik baitator, berak badaki bere hizkuntza infrabalaratua bizi izan dela, eta barruan dauka bizipen hori. Eta gero dauka bestea, intelektuala, biak ditu. «Ni konturatzen naiz orain boterea daukadala» esaten zuen. «Konturatzen naiz, eta erabili dezakedala, nere boterea, intelektual bezala.» Baina bestearen bizipena ere badu, horregatik praktika irakurtzen du hain era garbian.

X.M.– Horrekin lotuta dago berak kontaktzen duen anekdota bat, bere lan bat entregatu zuenean eskolan, nola irakasleak keinu baten bidez bere oniritzia adierazi zion bere konplexu hori, bere buruarekiko zaukan halako kontzientzia gutxiago hura, gainditzeko indarra sentituz. Oso interesgarria da zeinen garrantzi handia ematen dio keinu pedagogiko horri, esaten du beste gauza askok baino indar gehiago transmititu ziola...

A.U.– Bai, nik gogoratzen dut egun batean, São Paulo-ko unibertsitatean, klasean, nola ikasle batek errepikatu zuen edo galdera bat egin zion, zerbaiti buruz. Eta denok elkarri begiratu genion, esanez bezala «hau zer ari da galdetzen? hau dago argituta orain dela ez dakit zenbat denbora». Beno hura pasa zen, esplikazioak eman zizkion berriro ere, lehenengo aldia izango balitz bezala eta gero esan zuen: ez dago alferrikako galderarik eta ezta azken hitzarik. Tratamenduari, keinu pedagogikoari garrantzi handia ematen zion.

S.O.– Beti. Errespetuz... Errespetu hitza topatu dut nik baztar guztietan, Aldaketa bezala, *mudança*. Nik uste dut bi hitz hauek bazter guztietan errepikatzen direla.

X.M.– Errespetuak esan nahi du bestea aintzakotzak hartzen duzula, eta bestea aintzakotzat hartzen ez baduzu ez dago dialogorik. Dialogoaren oinarria dago besteari zeure buruari adineko *status* bat ematen badiozu. Hori errespetuarekin bakarrik egin daiteke.

Eta *mudanç*arena edo aldaketarena, hori da esperantzaren oinarria. Ze gauzak ikusiko bazenitu alda ezin bezela ez dago ezer egiterik.

A.U.– Bizia bukatu da.

X.M.– Bizia bukatu da, gauzak horrela geratuko dira, ez dago ezer bukatzerik,... bukatuta daude, itxita daude, eta abar. Nik ikusten dut dauzkan oinarrizko puntuak oso koherenteki lotuak daudela denak. Ezer ez dago soberan, ezer ez da faltan. Liburu guztiak dauka horrelako eraikuntza, arkitektura, moduko irudi bat

A.U.– Edertasun bat dago hor! Berak lantzen du estetika hori. Kritikarako katedralaren eraikuntzan dabilela dirudi.

S.O.– Izatez hori da Unibertsitatea! Unibertsala izatea, irekia izatea. Gero ez dakit zer gertatzen den leku batzuetan.

A.U.– Badakizu ze aukera ematen dizun gelak? Etxean ez daukagu askotan denborarik edo espaziorik, edo... autoritarismo gehiago dago. Ikasgelan aukera ematea bakoitza agertzeko, erakitze, konstruzio lana ezinbestekoa iruditzen zait.

S.O.– Baina ikusi beharko da nola dagoen gelaren topologia. Gela nola dagoen antolatuta, non dagoen irakaslea, non dauden ikasleak,...

A.U.– Ez zaio inportik. Begira! São Pauloko unibertsitatean Freire-ren gelan lurrean eserita ere egoten ginen. Transportatuak sentitzen ginen. Da aukera hori sentitzea, ematea. Zu naiz eta lurrean eserita egon, baliotasun bat daukazula sentitzea.

S.O.– Baina Arantxa, nola sentiaraz dezaiokegu Freire, horrelako Freire, hemengo irakasle bati?

A.U.– Horretara joan behar dugu. Zergatik ez? Gu ere izan gaitzke eta gara... neurri batean Freire. Hemen badaude Freireak, E! Hemen ba daude, ba ditugu. Eta nik uste dut Freire bezain onak, naiz eta horrela ez idatzi. Baina badaudela, eta ditugula. Zergatik ez?

S.O.– Bai, bai, bai.

A.U.– Nolabait agerarazi behar dira... Horregatik, isiltasun hortan,... hor dago kezka. Zergatik ez da nabarmentzen holako pedagogia bat gure pedagogia-fakultatean? Norbaitek lan hau egin beharko luke. Beharrezkoa ikusten dut pedagogia munduan.

S.O.– Baina unibertsitatean dagoen irakaslea, irakaslea da lanbidez, baina pertsona horrek bere ikasketa prozesua bukatu duenean... eta hartu dutenean funtzio hori betetzeko; norbaitek hartu al du urtebeteko edo bi urteko denbora pertsona hori trebatzeko irakaskuntzarako? Ez dut esan nahi transmizio baloreak nola egin behar diren, baizik espazio horretan nola jokatu behar den. Teoria baina praktika aldi berean ematen. Hor dena guztiz banatuta dago. Eta «esperimental» deitzen diren karreretan, laboratoriorik batzuk daude non gero hor ikerketa eta egiteko... Horrela ikasleak bi espazio dauzka lan egiteko. Batean teoria eta bestean praktika. Baina beste hainbat karreretan...? Askotan dauka deus.

X.M.– Nik uste dut unibertsitatea orotan oso banatuta dagoela... praktikan ezagutza transferentzia ia-ia soil baterako.

A.U.– Horregatik norbaitek behar du, poliki poliki, hau sentitu. Eta bizipena bideratzen hasi.

X.M.– Lehenengo hasi behar litzateke konstatazio hori argi eta garbi egitetik.

A.U.– Kritika batekin hasi beharko genuke baina ez dugu egiten.

X.M.– Eta gainera uste dut neurri bateraino sektore handi bat horretan harro dagoela, eta gainera iruditzen zaiola beste elementu batzuk hor sartzea izango litzatekeela behar bada perturbazio bat sortzea.

S.O.– Baina Xabier igual ez dago hain harro beste sektore bat. Zeren momentu honetan, hemengo unibertsitatean badago talde bat hezkuntzaren kalitateaz lana egiten. Eta hor dabilzate kanpotik anekarri behar izan duten beste ebaluadore batekin, eta horren irakaslea den tipo batekin, hor dabilzate antolatzen ikastaroak...

X.M.– Baina nik esango nuke hori ere planteatu dela gehiago transferentzia bera hobetzeko. Baina ez tranferentziaz aparteko balioez hitz egiteko.

A.U.– Hor dago.

X.M.– Pixka bat lehenago esaten nuena liberalismoaren planteamenduari buruz.

A.U.– Etekin ateratzeko.

X.M.– Etekinak eta erresultatuak, emaitzak... eta hori ikusten da teknikak hobetuz, ez dakit ze elementu emozional eta sentimenduzkoak sartuz...

S.O.– Ados nago esaten duzunarekin. Eskola barruko partaidetza piztu behar da.

X.M.– Lehen ere esan dizuet, liberalismoak taldean lana egingo duen jendea behar du. Enpresak ezin dute funtzionatu hori ez bada lortzen.

A.U.– Ez baitago beste biderik

X.M.– Gizartean hobeto bizitzeko, gure burua hobeto garatzeko, ez dakit ze *consensus* hobe lortzeko; izan ere, edozein enpresatan emaitza on bat lortzeko horrela funtzionatu beharra dago gaur. Eta horrela ez bada funtzionatzen, ez dago kalitaterik. Orduan nire zalantzak da, egiten diren planteamendu hauek, eta teoriarik ondo iruditzen zait zeren beti positibokiak direla zentzu batean uste baitut; baina aurretik, nire iritziz, konbentzimendu handirik gabe, Freire-ri buruz hitz egiterakoan aipatu ditugun balio horiek aintzakotzat hartu gabe.

S.O.– Noski ez dut uste Freire dutenik bere ikuspegietan.

X.M.– Ez naiz Freire-z ari, balioez ari naiz. Freire-k aipatzen dituen balioez. Beste kontu bat da...

S.O.– Baina beno, nik beste tipo bat ezagutzen dut prospektiba munduan lana egiten duena asko, Godet da. Ta Godet jaun honek, Michel Godet, honek aipatzen ditu hainbeste puntu enpresakoak eta nik uste dut oso paraleloak direla Freire-k kontatzen digunarekin. Freire eskola barruan eta bestea enpresa barruan. Nahiko pareagarriak dira. Ez da bakarrik zuek lehen aipatu dituzun liberalismoa aldetik etorrita ba taldean lan egitea ta hori. Zeren unibertsitatean beti egin izan da lana taldean, eta jendea taldean lana egiteko sortu. Baizik momentu honetan hemen unibertsitatean zerbait gehiago dagola. Ikerlari onak formatzeko lekua izan behar du unibertsitatea. Eta gero aldi berean ere gizarteari balio baldin badiote lan munduan sartzeko oso ondo. Baina unibertsitatea ez da langileak formatzeko lekua. Unibertsitatea da ikerlariak eta irakasleak prestatzeko lekua. Eta orduan hortara joan behar da unibertsitatera. Komertzial bat preparatzeko, hortarako FP daude. Eta nik uste dut momentu honetan gure unibertsitateko zuzendaritzan erreflexio hori edo antzeko bat egin dutela. Sumatzen ditudan erreakzioengatik...

X.M.– Unibertsitatean, kalean, leku guztietan bezala, badaude pertsona batzuk hori nolobait haragiztatzen dutenak. Beren izaeratik. Berez dira pertsona horiek balio horiek bizi dituztenak, sinesten dutenak eta hori transmititzen dute inguru batean. Ekipoak sortuz, eta sentiaraziz horrela lan egin behar dela. Hau da, ez dela ni naiz jaun eta jabe, ni dakit inork baino gehiago. Eta zuek danok nigandik ikasi, ta zuek danok nire morroi izan behar duzue. Ez, baizik beste era batera. Eta horiek, nik uste dut, horiek bai denborarekin alda dezaketela, ez unibertsitate guztia, baina bai guneak sortuko dituztela. Horrelakoak badaude EHUen.

A.U.– Erreferentzia bezala.

X.M.– Eta nik horrelakoren bat ezagutzen dut. Nik ez dut barrutik ondo ezagutzen baina nik ditudan datuak eta informazioarekin horrela ikusten dut. Honelako erreferentzia eta beste batzuk egongo dira nik ezagutzen ez ditudanak izenez ere. Orain, zalantza handiak ditut planteamendu global oso kontziente... sistema bezala egiten ari denik. Horrelakoak bai, eta holakoak eraginak gero eta handiagoak izan dezakete. Prestigio handia dute, eta beren ideiak ere pixkanaka ba zabaldu egingo dira,

A.U.– Xabier, sistema bezala zaila izango da. Berak, Freirek, esaten du beti bere liburuetan: nik badakit ibai gora nindoala. Orduan beti izango da minoria bat edo sentzibilitate gutxiengoena. Baina hor egon behar du erreferentzia bezala. Zeren sistema beti beste alde batzuetara doa.

X.M.– Inoiz ez da aldatuko hori erabat. Baizik egongo dira gune batzuk argiagoak, indartsuagoak, transmititzen dutenak, eta gune batzuk ahulagoak, ilunagoak eta astunagoak.

A.U.– Tristeena da isiltasun hori.



X.M.– Baina esate baterako debate handi bat honi buruz, nik ez dakit udako unibertsitateko ikastaro hauetan... holako gai bati buruz badagoen debate sakon bat.

A.U.– Ez dago!

X.M.– Nik beti beste erabateko gai horiek ikusten ditut.

A.U.– *La mudança?* hor dago kezka! Ez da egiten kritika hori. Ez da egiten debate hori. Orduan ez dago aldaketa! Sistema berean, plas, plas....

S.O.– Dena dela hori, hemen Eusko Ikaskuntzatik ere planteatu daiteke datorren urtera begira erreflexio seminario modura, irekitasunean.

A.U.– Bai. Debateak planteatu behar dira. Kontzientziatzeko. Geure buruak aldatzeko kolonizatuta gaude sistemarengandik eta.

X.M.– Eta gainera hori, seguraski, ba Freire-ren kasuan pertsona berezi bat izan da, bere bizitzan garbi ikusi dituena balio batzuk. Eta gainera bere burua horretara dedikatu du. Normalean beste pertsona batzuk, eta hor neure burua kokatzen dut, uler ditzakegu, estima ditzakegu pertsona batek, mila zirkunstantziagatik bizitzan egiten dituen gauza batzuk. Ez gara inoiz iristen Freire-k daukan espezializaziora gai horretan. Baina horreraino iritsi gabe ere, nik uste, tarteko pauso asko dagoela. Freire da sekulako foko indartsua. Gu gara eskuargi batzuk, linterna batzuk izango gara.

S.O.– Bera da, Freire, zuk esan duzuna, foko hori, edo faro hori. Eta faro horretara ba gu hurbiltzen gabilta txaluparekin, eta beste batzuk itsasontzi handiago batekin ibiliko dira.

A.U.– Baina denok daukagu gure argitasuna. Eta argitasun horri ez diogu askotan uzten ateratzen. Egunerokotasunean sistema barruan sartuta, eta burundara horretan gure argitasuna hor geratzen da. Ikasgela ilun batetan sartuta inork ere ez duela ikusten. Ze pena. Eta gero ikasleak... Ikasleari ez diogu entzuten. Ez nuke nahi pasa hurrengo mendera, ikasleei entzun gabe. Beraiei buruz hitz egiten ari gara, baina beraien ahotsa?.. Non dago? Interpretatuak dira.

X.M.– Seguraski abiatzen garelako ikasleak ez ahotsa adierazpenak esateko

S.O.– Kasu honetan ez daude ikasleak, batetik ez diegulako deitu...

A.U.– Baina esan nahi dut gertatzen den gauza normala dela. Edo normaltzat jotzen dugula.

S.O.– Bestetik ari garelako liburu honetaz hitz egiten. Eta orduan suposatzen dut, teoriar behinik behin, ba hemen gaudenak liburua irakurri dugula, eta modu batean edo bestean ezagutzen dugula.

X.M.– Egin zitekeen bigarren parte bat. Hau da, guk hau ezagutzen badugu, honetaz hitz egin dezakegu bide batez, gure bizitzaz gure ideiez eta abar. Beste kontu bat izan daiteke, gu entzuten egotea horretaz ez dakiten batzuk, apunteak eta gauzak hartu eta gero hitz egitean esatea: begiratu esan duzun hori... komentatu dituzuen gauzen artean holako eta halako balorapenak... telebistan egiten dituzte holako debate batzuk. Hau da, egoten dira elkarrizketatzaileak eta elkarrizkatatuak hizketan eta hiru edo lau pertsonak hartzen dituzte oharrak. Eta azkenean galdetzen zaio bakoitzari zer izan den gehien inpaktatu diona. Eta hori interesgarria izaten da. Ze lau pertsona egoten badira, bakoitzak gauza ezberdinak, aukeratzten ditu normalean; eta sintesi polit bat egiten da. Lau esalditan, gai honetaz normalean, gehiegi ez dakien norbaitek entzun duen elkarrizketa honetatik bere aukera egingo du. Eta azkenean lau pertsona horiek ematen dute, nolabait, hor adituago edo gaian sartuago dauden edo ibili diren pertsona horiek, zer den beretzat interesgarria. Eta hori bai egin daiteke,

eta horretarako ez dago ezertan aditua izan behar. Bakarrik entzuten egotea eta esan: beno ba esanduzun horretan gauza interesgarritako bat haxe izan da.

A.U.– Hau abiapuntu bezala. Gero beste gauzak etorriko dira.

X.M.– Bakoitzak, ikusten da zer edo zer ezberdina azpimarratzen duela.

A.U.– Bakoitzak bere osaketa.

X.M.– Bakoitzak bere interesak nola dauden, bere kezka edo,... orduan batek azpimarratuko du, ba garrantzi handia ematen zaiola elkarrizketari, beste batek esango du garrantzi handia ematen ziola, entzutea jakiteari ta besteak esango du jakin-minari, eta besteak esango du...

A.U.– Kritikari

X.M.– Kritikari,... eta bakoitzak hartzen du berea... eta hori polita da ikustea, nola errealtate beraren aurrean egoten diren erreakzio mota ezberdinak.

A.U.– Paulo Freirek irakurketa eta idazketari buruz dionari lotuta... zuk esan zenidan behin, zuri, amak erakutsi zizula... etxean, irakurtzen. Eta zuk ere bai Sabin, ezta? Freire-k esaten duenean nola ikasi zuen irakurtzen eta idazten, bere etxean bere gurasoekin, bere amarekin, lurrian idatziz txotxekin edo... etxeko giroan, sintonia berdinean ibiliak zaretela iruditzen zait.

X.M.– Nik oso garbi daukadana da, niretzat bizitzan motibazio, estimulazio iturri inportantea izan dela etxea.

A.U.– Eta Freire-ren gurasoak ez ziren intelektualak. Eta zureak, Xabier?

X.M.– Baserritarak. Gauzak eta batez ere kultura, jakitea, eskola baloratzen zutenak, naiz eta baserritar soil-soil batzuk izan.

A.U.– Zure ama? ikasia da?

S.O.– Bai eskolatik pasa dena ikasia baita, eta historia eta geografian izugarri jakituna.

X.M.– Gauzak eta batez ere kultura, jakitea, eskola baloratzen zutenak, nahiz eta baserritar soil-soil batzuk izan.

A.U.– Bai, baino etxean, etxeko giro horretan.

S.O.– Niri irakatsi zidan amak, ingurua guztia erdalduna zularik, *Xabiartxo* irakurtzen.

X.M.– Hor gauza bat dago oso garbi, gero askotan banatuta ikasten diren gauzak, kontzeptuak, ideiak, eta kultura orohar, emozioak eta sentimenduekin lotuta daudela eta horrek motibazio izugarria sortzen du, eta bihurtzen da egiten duzun lana zuretzat hori baita gauzarik inportanteena.

A.U.– Ikusten dut, kultura, osotasunean bizitutako umeak zaretela.

X.M.– Abiapuntuan nik uste dut baietz.

S.O.– Guri bi anaia zaharroi, amak irakatsi zigun. Eta gure arreba ikastolan sartu zuten, beste sistema baten barruan, eta amak nahi zion irakatsi irakurtzen baina ezindua izan zen irakasle eta sistemarengandik, arrebak bere prozesu barruan ikasiko zuela ezanaz. Gurekin inork ez zion esan amari nola jolastu behar zuen, eta berak jolaste horretan erakutsi zigun deszifratzen grafemak.

A.U.– Hor ikusten da klasismoa. Irakaslearen klasismoa. Bera zen profesionala, zure ama ez! Hor galdu egiten da jende proiektzioa, humanitatea.

X.M.– Hori askotan egiten da gainera espezializazioaren eta teknikatutasunaren izenean. Eta justu lortzen dena lehen esan dugun osotasun hori etetea da. Horrela ez dugu lortzen oinarritzko sintesi bat...

A.U.– Hori disoziazioa da. Eta profesionalok jakin behar dugu bizi osoaren inplikazioan jakinduria norberegatu behar dela, etenaldirik gabe. Profesionalak ez dauka biziaren esklusibitate, hau denon eremua da, zer esanik ez gurasoena, etxekoena, lagunena eta abar...

X.M.– Amaiera eman nahian elkarrizketa honi esan nahi nuke: Freire irakurrita, bere buruarekin eta inguruarekin ondo sentitzen zen pertsona baten obra, irakurri dudalakoan nagoela. Hori gauza bat. Eta bestea gu bizi garen gizarte honetan, Euskal Herriko gizarte honetan, liburuan planteatzen denak, indarra eta laguntza ekarriko digula. Ze barruan bizi gara pentsaera ezberdina dugun pertsonak eta taldeak, behar dugun irakurketara garamatza: elkarrizketara, negoziaketara, bata besteak aintzakotzat hartzera... abentura bidera azkenean. Hemen egiten diren ekarpen batzuk oso beharrezkoak dira gure artean bizi dugun gatazka giro hau gainditzeko.

A.U.– Nik liburua irakurtzerakoan, zerbaitetan gehiago izan dezakedan sentipena somatzen dut, eta eraldatze hortan saiatzea ariketa bezala bizi nahi dut.

S.O.– Laburbilduz esango nuke: apaltasunarekin gehiago egin daitekeela harrotasunarekin baino. Niri atentzio gauza askok deitu didate: irakurketari buruz, berak esaten duenean *“como educador é preciso ir lendo melhor a leitura do mundo”* hau esatea niretzat ez da bakarrik pedagogo edo soziologoa izatea baizik eta pertsona, *JENDE* izatea.



Pye Engstron artista suediarrek eginiko eskultura Estocolmo hiriko Västertorp auzoan. Paulo Freire erdiko pertsonaia da.

